



ERMUA

Ermuako Udaletxeak fatxadak eraberritzeko diru laguntzak ematen ditu Alde Zaharreko egoitzadun eraikinetan edo etxebizitza eta lokaketan.

Eraikuntza, instalakuntza eta obren zerga ez dute ordaindu beharko, barruko bizigaitasuna hobetzeko obra txikia denean edo etxeko segurtasuna hobetzeko baldin bada, beti ere herriko-ordenantzen epe barruan burutzen denean.

Alde Zaharreko errehabilitazio obretan Udaletxeak %70ko beherapena egiten du eraikin, instalakuntza eta obren zergan.

Laguntza eskaerak Udaletxe bertan egingo dira.